



YASUKE

Antton Irusta

Enrique Morenteren marrazkiak

Desclée De Brouwer



Kaixo lagunok. Yasuke naiz eta hamar urte ditut. Japoniako hiritik hurbil bizi naiz, Ogawan. Ogawa ez dago urrun Tokiotik, Japoniako hiriburutik.

Oso txikia jaio nintzenez, eta gurasoek indartsu eta osasuntsu haztea nahi zutenez, Yasuke izen jarri zidaten, “Yasu”k “handia” esan nahi baitu.

Nire izena ahoskatzen den bezala idazten da.

Handitan zientzialari izan nahi dut, eta dinosauroen fosilak aztertu. Duela gutxi amonak Tokioko museo Nazionaleko dinosauro era-



kusketara eraman ninduen eta bizitza osoan egin dudan gauzarik interesgarrienetakoa izan zen.

Japoniako etxe gehienak bezala, gurea ere egurrezkoa da. Anaia Sotarekin eta arreba Akanarekin egiten dut lo. Sotak eta biok literetan egiten dugu lo, eta Akanak futoian, Japoniako koltxoi tradizional batean. Niri ere gustatuko litzaidake futoi batean lo egitea, baina lurrean ez dago nahikoa toki.

Nire gustuko frakak txandalak dira eta beste japoniarrek egiten duten bezala, etxera sartu baino lehen, zapatilak eranzten ditut; kalera irteteko, ordea, lonazko zapatilak janzten ditut.

Gurasoek baserri lanak egiten dituzte. Amak saltzen ditu etxeko



produktuak, eta nik etxeko lanak egiten laguntzen dut: tximinia piztu eta otorduen ondoren ontziak garbitzen ditut egunero.

Etxean bostehun bat oilo daukagu eta egunero arrautzak saltzen ditugu; horrez gainera, hamar txerri eta bi ardi. Txerriak hazten ditugu euren okela saltzeko eta ardiak, ostera, artilea aprobetxatzeko.

Gure etxaldea soroz inguraturta dago, eta soro horietan barazki desberdinak lantzen ditugu. Gainera, lursail batean, beste lau familiarekin batera, arroza ere egiten dugu, Japonian gehien hazten den produktua.

Astean sei egunetan joaten naiz eskolara eta hilean larunbat bakarra izaten dut libre. Eskolara li-



buru zorro tradizionala eramaten dugu, eta liburu zorro honek ikasketek irauten duten adina iraun behar dugu. Eskolan gehien gustatzen zaidana natur zientziak dira, eta gutxien matematika. Daisuke da txiki-txikitatik nire lagunik hobereena. Bioi gustatzen zaigu bizikletaz ibiltzea, baina, batez ere, bideo jolasak gustatzen zaizkigu.

Japoniar gehienek bezala, sarritan jaten dut arraina eta mariskoa; adibidez sashimi-a (arrain gordina) eta algak. Etxeko barazkiak eta arroza ere jaten ditut, baina nire janaririk gogokoenak txerri saiheskiak eta soba izeneko fideoak dira. Gainera, jateko makiltxoak erabiltzen ditut.

Ohitura berezi asko ditugu Japonian, adibidez, Urtero, Ume Egu-



nean, ni bezalako seme gazteak dituzten familia japoniarrek arra- in itxurako kometak zintzilikatzen dituzte etxearen kanpoaldean.

Gurera etortzen bazara hamai- katxo ipuin entzungo duzu, han eta hemen. Esate baterako Izana- giren ipuina. Gura arbasoek kon- tatzen dute Izanagi eta Izanami izan zirela gure lehen jainko eta jainkosa. Zerutik sortu berri zen lurrera jaitsi ziren eta jauregi bat eraiki zuten elkarrekin bizi ahal izateko.

Beraien lehen semea Hiruko zen eta ostean beste bat izan zuten: Kagutsuchi.

Hamaika gauza kontatu nahi dizut gure bizimodu, ohitura eta ipuinei buruz, eta atseginez irakur



ditzazula nahi nuke. Badakit Japonia oso urrun dagoela zure herri-
tik, baina ipuinak gustuko baditu-
zu, ni prest naukazu kontu-kontari
aritzeko. Goazen bada.

